



Zaratamoko Udala
Bizkaia

Hondakin organikoak jasotzeko zerbitzu berria: bosgarren edukiontzia eta autokonpostatzea

Zaratamoko Udalak eta Udaltalde 21ek jakinarazten dute hondakinen frakzio organikoaren gaikako bilketaren zerbitzu berriaz.

Bosgarren edukiontzia

Hona botako dira kozinatu gabeko landare-hondakinak: fruta eta barazkiak, lorezaintzako hondar txikiak, ogia, fruitu lehorrak... Edukiontzi honetara botatzen diren hondakinak Konpostatze-Plantara eramango dira, eta han mendi eta lorategietarako kalitate oneneko ongarri edo konpost bihurtuko dituzte.

Izena emandako etxe bakoitzak birziklapen-kita jasoko du: ontzi bat, konpostatzeko poltsak, edukiontzia irekitzen duen giltza eta azalpen-eranskailua.

Autokonpostatzea

Lorategitik, baratzetik edo sukaldetik datozen hondakinekin zeure konposta egin dezakezu, hondar organikoak konpostagailuan sartuz.

Izena emandako etxe bakoitzak konpostagailua, aireztatzeko tresna eta gida didaktikoa jasoko ditu. Autokonpostatzearen materiala zein birziklapen-kita jasotzeko, prestakuntza-tailer bat egingo da:

- **azaroaren 4an**, (asteartea), 18:00 eta 20:00 bitarte, Elexalde Kultur Etxean eta
- **azaroaren 12an**, (asteazkena), 18:00 eta 20:00 bitarte, Arkotxa elizan.

Bosgarren edukiontzian edo autokonpostatzean izena emateko moduak hauek dira:

- 1.- Postontzi bakoitzera iritsiko den kupoia bete eta Udaletxean edo Gizarte Zerbitzuetan (Arkotxa) utzi. Doakoa da.
- 2.- www.ut21.org webgunean edo konposta@ut21.org helbide elektronikoaren bidez.
- 3.- 94 621 54 72 telefono-zenbakira deituz.

Bizkaiko Foru Aldundiak diruz lagundutako ekintza da.

2014 ko urriaren 14a

Nuevo servicio de recogida de residuos orgánicos: quinto contenedor y autocompostaje

El Ayuntamiento de Zarategui y Udaltalde 21 informan del nuevo servicio de recogida selectiva de la fracción orgánica de los residuos.

Quinto contenedor

Es el destino para los residuos vegetales no cocinados: frutas y verduras, pequeñas cantidades de restos de jardinería, pan, frutos secos... Los residuos que se depositan en este contenedor se trasladan a la Planta de Compostaje donde los convierten en abono o compost de primera calidad para montes y jardines.

Cada hogar apuntado recibirá el kit de reciclaje: un cubo, bolsas para compostar, la llave que abre el contenedor y el adhesivo explicativo.

Autocompostaje

Con los residuos procedentes del jardín, la huerta o la cocina, puedes producir tu propio compost depositando en el compostador los restos orgánicos.

Cada hogar apuntado recibirá el compostador, el aireador y la guía didáctica.

Para recoger tanto el material de autocompostaje, como el kit de reciclaje habrá un taller formativo:

- **4 de noviembre** (martes), de 18:00 a 20:00 h., en la Casa de Cultura de Elexalde, y
- **12 de noviembre** (miércoles), de 18:00 a 20:00 h., a la iglesia de Arkotxa.

Los canales para inscribirse en el quinto contenedor o el autocompostaje son:

- 1.- Rellenar el cupón que llegará a cada buzón y entregar en el Ayuntamiento o en los Servicios Sociales (Arkotxa). Es gratuito.
- 2.- En la web: www.ut21.org o a través del email konposta@ut21.org
- 3.- En el teléfono: 94 621 54 72

Es una actuación subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia.

14 de octubre de 2014

ALKATEAK